

ITZULPENA¹

| | |
|--------|--|
| Araua: | 2006/46/EE ZUZENTARAUUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2006ko ekainaren 14koa, honako zuzentarauak aldatzen dituen: Kontseiluaren 78/660/EEE Zuzentaraua, sozietate-mota jakin batzuetako urteko kontuei buruzkoa, 83/349/EEE Zuzentaraua, kontu finkatuei buruzkoa, 86/635/EEE Zuzentaraua, bankuetako eta beste finantza-erakunde batzuetako urteko kontuei eta kontu finkatuei buruzkoa eta 91/674/EEE Zuzentaraua, aseguru-enpresetako urteko kontuei eta kontu finkatuei buruzkoa. (Testu egokia EEEri dagokionez). |
|--------|--|

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu horren ziurtagiria du.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik, eta itzulpen honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «*DIRECTIVA 2006/46/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO de 14 de junio de 2006 por la que se modifican las Directivas del Consejo 78/660/CEE relativa a las cuentas anuales de determinadas formas de sociedad, 83/349/CEE relativa a las cuentas consolidadas, 86/635/CEE relativa a las cuentas anuales y a las cuentas consolidadas de los bancos y otras entidades financieras y 91/674/CEE relativa a las cuentas anuales y a las cuentas consolidadas de las empresas de seguros*» (Diario Oficial de la Unión Europea, L 224 de 16/8/2006)

(Aplikatuko badira, nahitaez argitaratu behar diren egintzak)

2006/46/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,

2006ko ekainaren 14koa,

honako zuzentarauak aldatzen dituen: Kontseiluaren 78/660/EEE Zuzentaraua, sozietate-mota jakin batzuetako urteko kontuei buruzkoa, 83/349/EEE Zuzentaraua, kontu finkatuei buruzkoa, 86/635/EEE Zuzentaraua, bankuetako eta beste finantza-erakunde batzuetako urteko kontuei eta kontu finkatuei buruzkoa eta 91/674/EEE Zuzentaraua, aseguru-enpresetako urteko kontuei eta kontu finkatuei buruzkoa.

(Testu egokia EEERi dagokionez)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR
BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatuaren —bereziki
Tratatuaren 44. artikulua— 1. paragrafoa— aztertu
dute,

baita Batzordearen proposamena eta

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena
ere¹, eta

Tratatuaren 251. artikuluan² ezarritako
prozeduraren arabera,

Honako hauek kontuan hartuta:

(1) 2003ko maiatzaren 21ean, Batzordeak ekintza-
plan bat egin zuen, eta plan horrek adierazten zuen
sozietateen zuzenbidea berritzeko eta Erkidegoaren
gobernu korporatiboa indartzeko neurriak hartuko
zirela. Lehentasun hauek finkatu ditu Erkidegoak epe
laburrean betetzeko: administrazio-organoko kideen
ardura kolektiboa areagotzea, lotura duten alderdien
transakzioen eta balantzean sartu gabeko akordioen
gardentasuna handitzea eta sozietateetan aplikatutako
gobernu korporatiboko jardueri buruzko informazioa
hobetzea.

¹ C 294 EO 2005.11.25koa, 4. or.

² Europako Parlamentuaren Irizpena, 2005eko abenduaren
15koa (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabea), eta
Kontseiluaren Erabakia, 2006ko maiatzaren 22koa.

(2) Ekintza-plan horren arabera, sozietate bateko
administrazio-, zuzendaritza- eta ikuskapen-organoko
kideek urteko kontuak eta kudeaketa-txostenak
egiteko eta argitaratzeko ardura kolektiboa izan behar
dute gutxienez, sozietate horren aurrean. Baldintza
bera aplikatu behar zaie urteko kontu finkatuak egiten
dituzten sozietate menderatzaileetako administrazio-,
zuzendaritza- eta ikuskapen-organotako kideei.
Barne-zuzenbideak ematen dien eskumenen
esparruan jardungo dute organo horiek. Alde batetik,
eskakizun horrek ez die galaraziko Europar
Batasuneko estatu kideei haratago jotzea, eta, horrela,
ardura zuzena xedatu ahal izango dute akziodunekin,
bai eta interesa duten beste alde batzuekin ere.
Bestetik, Europar Batasuneko estatu kideek ez diete
administrazio-organoko kideei banaka-banaka
aplikatu behar ardura mugatuko sistema. Hala ere,
horrek ez du galarazi behar auzitegiek edo Europar
Batasuneko estatu kideetan arauak aplikatzen direla
egiaztatuzko ardura duten beste erakundeek banakako
zigorrak jarri ahal izatea administrazio-organotako
kideei.

(3) Barne-zuzenbidean oinarrituta dago honako hauek
guztiak egiteko eta argitaratzeko ardura: banakako
urteko kontuak, banakako kudeaketa-txostena, urteko
kontu finkatuak eta kudeaketa-txosten finkatua.
Europar Batasuneko estatu kide bakoitzak bere barne-
zuzenbidean ardurari buruz ezarritako arau egokiak
aplikatuko dizkie administrazio-, zuzendaritza- eta
ikuskapen-organotako kideei. Europar Batasuneko
estatu kideek askatasuna izan behar dute ardura hori
zenbatekoa den erabakitzeke.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(4) Europar Batasun osoan finantza-informazio sinesgarria emateko prozesuak sustatzeko, sozietate bateko finantza-txostenak egiteko ardura duten organoetako kideek bermatu beharko dute egiazkoa dela urteko kontuetan eta kudeaketa-txostenetan sartutako finantza-informazioa.

(5) 2004ko irailaren 27an, Batzordeak Jakinarazpen bat eman zuen finantza- eta enpresa-jarduera bidegabeak prebenitzeko eta horien kontra egiteko. Jakinarazpen horren arabera, besteak beste, Batzordeak ekimen politikoak jarriko zituen abian sozietateen barne-kontrolari eta administrazio-organoko kideen ardurari lotuta.

(6) Gaur egun, Kontseiluaren 78/660/EEE laugarren Zuzentarauak¹ eta Kontseiluaren 83/349/EEE zazpigarren Zuzentarauak² sozietate baten eta bere filialen arteko transakzioen zabalkundea bakarrik xedatzen dituzte. Merkatu arautu batean baloreak kotizatzen utzi ez dieten sozietateen eta urteko kontu finkatueterako kontabilitateko nazioarteko arauak ezartzen dituzten sozietateen artean hurbilketa lortzeko, beste mota bateko loturadun alderdietara ere hedatu behar da zabalkundearen betebeharra — besteak beste, zuzendaritzako kide nagusiengana eta administrazio-organotako kideen ezkontideengana —, baina transakzio horiek garrantzitsuak direnean eta elkarrekiko independente egiten ez diren kasuetan bakarrik. Lotura duten alderdiekin transakzio garrantzitsuak egiten badira merkatuko baldintza arruntetan ez beste baldintza batzuetan, eta transakzioen informazio hori barneratzen bada, urteko kontuen erabiltzaileek sozietatearen finantza-egoera ebaluatu ahal izango dute, eta, sozietatea talde baten barruan badago, talde osoaren finantza-egoera ebaluatu ahal izango dute. Lotura duten alderdien artean egiten diren talde barruko transakzioak ez dira sartu behar urteko kontu finkatuak egitean.

(7) Lotura duten alderdien definizioak Batzordeak egindako kontabilitateko nazioarteko arauetan sartuta daude, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko uztailaren 19ko 1606/2002 (EE) Erregelamenduaren, kontabilitateko nazioarteko arauak aplikatzeari buruzko Erregelamenduaren³, arabera. Definizio horiek aplikatu behar zaizkie 78/660/EEE eta 83/349/EEE Zuzentarauei.

(8) Balantzean sartu gabeko akordioek arrisku eta onura batzuk sor diezazkiokete sozietate bati. Arrisku eta onura horiek garrantzitsuak dira bere finantza-egoera ebaluatzeko, bai eta sozietatea talde baten

barruan badago, talde osoaren finantza-egoera ebaluatzeko.

(9) Balantzean sartu gabeko akordio horiek sozietateek beste erakunde batzuekin izan ditzaketen edozein transakzio edo akordio izan daitezke, forma juridiko jakinik ez dutenak barne, baldin eta ez badaude balantzearen barruan. Akordio horiek honako alderdi hauekin lotu daitezke: helburu bereziko erakunde bat edo gehiago sortzearekin edo erabiltzearekin eta, besteak beste, helburu ekonomiko, juridiko, fiskal edo kontablea duten lurraldez gaindiko jarduerekin. Balantzean sartu gabeko akordio horien adibideak dira honako hauek: arriskuak eta onurak partekatzeak akordioak edo kontratu batetik sortutako betebeharrak —besteak beste, zorren deskontua— saltzeko eta ondoren berriro erosteko ituna duten akordio konbinatuak, merkantzia-kontsignazioen akordioak, erosteko akordio irmoa deuseztapen eskubiderik gabe (*take or pay*), hainbat sozietateren arteko titulazio-akordioak (forma juridiko jakinik gabek), aktiboen pignorazioa, errentamendu operatiboko akordioak, norbere zerbitzuak kanpora ateratzea eta antzeko beste hainbat akordio. Balantzean sartu gabe dauden akordio horien arrisku eta onura garrantzitsuei buruzko informazioa banakako urteko kontuen edo urteko kontu finkatuen memorian jaso behar da.

(10) Merkatu arautu batean baloreak kotiza ditzaketen sozietateek egoitza soziala Erkidegoan badute, gobernu korporatiboko urteko txostena argitaratu beharko dute, eta txosten hori kudeaketa-txostenaren berariazko atala izango da, erraz identifikatzeko modukoa. Txosten horretan, akziodunek erraz aurkitu behar dute informazio nagusi hau gutxienez: aplikatutako gobernu korporatiboko jarduerak, finantza-informazio emateko prozesuarekin lotutako arriskuak kudeatzeko sistemen eta barne-kontrolako sistemen ezaugarri nagusien deskribapena barne. Gobernu korporatiboko txostenak argitu beharko du sozietateak aplikatzen ote duen barne-zuzenbidean jasotako xedapenetatik kanpoko beste xedapenen bat gobernu korporatiboaren arloan, xedapen horiek sozietateak bete beharreko gobernu korporatiboko koderen batean jasota dauden edo sozietateak gobernu korporatiboko beste koderen bateko xedapenak aplikatzea erabaki duen kontuan hartu gabe. Gainera, garrantzitsua den kasuetan, sozietatearen garapena, errendimendua eta jarrera ulertzeko, sozietateek ingurumen-alderdien eta alderdi sozialen analisi bat ere eman ahal izango dute. Ez da beharrezkoa kudeaketa-txosten finkatua egiten duten sozietateei gobernu korporatiboko aparteko txosten bat eginaraztea. Hala ere, arriskuak kudeatzeko sistemari eta taldearen barne-kontrolako sistemari buruzko informazioa azaldu beharko du txosten horretan.

(11) Zuzentarau honen arabera hartutako neurriak ez zaizkie nahitaez mota bereko sozietateei edo sozietate-taldeei aplikatu behar. 78/660/EEE

¹ L 222 EO 1978.8.14koa, 11. or. Azken buruan Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/43/EE Zuzentarauak (L 157 EO 2006.6.9koa, 87. or.) aldatu zuen Zuzentarauei.

² L 193 EO 1983.7.18koa, 1. or. Azken buruan 2006/43/EE Zuzentarauak aldatu zuen Zuzentarauei.

³ L 243 EO 2002.9.11koa, 1. or.

Zuzentarauko 11. artikuluan definitutako sozietate txikiak salbuetsi ahal izango dituzte Europar Batasuneko estatu kideek Zuzentarau honetan azaltzen diren loturadun alderdiei buruzko xedapenetatik eta balantzean sartu gabeko akordioetatik. Europar Batasunak egindako kontabilitateko nazioarteko arauak jarraiki, urteko kontuetan loturadun alderdiekin dituzten transakzioei buruzko informazioa ematen duten sozietateek ez dute informazio gehigarririk zabaldu behar, Zuzentarau honen arabera; izan ere, kontabilitateko nazioarteko arauak aplikatzeak berak erakusten du sozietate horren benetako irudia. Gobernu korporatiboko txostenari buruz Zuzentarau honetan azaltzen diren xedapenak sozietate guztiei aplikatu behar zaizkie —bankuak, aseguru- eta berraseguru-konpainiak eta merkatu arautu batean akzioak ez diren baloreak kotiza ditzaketen sozietateak barne—, baldin eta Europar Batasuneko estatu kideek ez badituzte txosten hori egiteko salbuesten. Administrazio-organotako kideek dituzten betebeharrak eta ardurei buruz eta zigorrei buruz Zuzentarau honetan azaltzen diren xedapenak Kontseiluaren 78/660/EEE, 86/635/EEE¹ eta 91/674/EEE² Zuzentarauetan azaltzen diren sozietate guztiei aplikatu behar zaizkie, bai eta 83/349/EEE Zuzentarauren arabera urteko kontu finkatuak egiten dituzten sozietate guztiei ere.

(12) Gaur egun, 78/660/EEE Zuzentarauek xedatzen du azterketa bat egin dadila bost urtean behin, eta, azterketa horretan, balantzearen gorenko maila eta Europar Batasuneko estatu kideek aplika dezaketen negozio-bolumenaren zenbateko garbiaren gorenko maila azter daitezela besteak beste, erabakitzeke zer sozietate gera daitezkeen memorian informazio-eskakizun jakin batzuk bete beharrik gabe. Bost urtean behingo azterketa horietatik aparte, komenigarria izan daiteke balantzearen eta negozio-bolumenaren zenbateko garbiaren gorenko maila horietan hazkunde osagarri bat egotea. Europar Batasuneko estatu kideek ez dituzte nahitaz erabili behar hazitako maila horiek.

(13) Europar Batasuneko estatu kideek ezin dituztenez behar adina bete Zuzentarau honen helburuak —hau da, mugaz gaidiko inbertsioa erraztea, urteko kontuak eta kudeaketa-txostenak Europar Batasunean orain baino konparagarriagoak izatea eta herritarrek horiengan duten konfiantza sendotzea, horretarako kalitate handiagoko berariazko informazioa, informazio koherenteagoa barneratuta—, eta, ondorioz, Zuzentarau honen tamaina eta ondorioengatik errazagoa denez Erkidegoan helburuak betetzea, Erkidegoak neurriak hartu ahal

¹ L 372 EO 1986.12.31koa, 1. or. Azken buruan Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003/51/EE Zuzentarauek (L 178 EO 2003.7.17koa, 16. or.) aldatu zuen Zuzentaraua.

² L 374 EO 1991.12.31koa, 7. or. 2003/51/EE Zuzentarauek aldatutako Zuzentaraua.

izango ditu Tratatuaren 5. artikuluan jasotako subsidiarotasun-printzipioaren arabera. Artikulu horretan adierazitako heinekotasunaren printzipioaren arabera, Zuzentarau honek ez du beharrezkoa baino haratago joko helburu horiek lortzeko.

(14) Zuzentarau honek errespetatu egiten ditu oinarritzko eskubideak, eta bereziki Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutunean ezarritako printzipioak betetzen ditu.

(15) «Legeak hobeto egiteko»³ erakundearteko akordioko 34. puntuaren arabera, Europar Batasuneko estatu kideak beren koadroak egitera bultzatu behar dira, beren intereserako eta Erkidegoaren intereserako, eta koadro horietan ahal den neurrian Zuzentarau hau eta transposizio-neurriak bat datozela erakustera eta horiek publiko egitera sustatu behar dira.

(16) Beraz, 78/660/EEE, 83/349/EEE, 86/635/EEE eta 91/674/EEE Zuzentarauek horien arabera aldatu behar dira.

HONAKO ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

78/660/EEE Zuzentarauren aldaketa

78/660/EEE Zuzentarauek era honetara aldatuta geratzen da:

1) 11. artikuluen lehen paragrafoa era honetara aldatu da:

- a) lehen puntuan, «balantzearen zenbatekoa: 3.650.000 EUR» hitzen ordez «balantzearen zenbatekoa: 4.400.000 EUR» jarri da;
- b) bigarren puntuan, «negozio-bolumenaren zenbateko garbia: 7.300.000 EUR» hitzen ordez «negozio-bolumenaren zenbateko garbia: 8.800.000 EUR» jarri da.

2) 11. artikuluko hirugarren paragrafoan, «53. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako azterketatik ateratako kopuruak finkatuko dituen Zuzentarauek kendu eta «zenbateko horiek finkatzen dituen edozein Zuzentarau» jarri da.

3) 27. artikuluen lehen paragrafoa era honetara aldatu da:

³ C 321 EO 2003.12.31koa, 1. or.

- a) lehen puntuan, «balantzearen zenbatekoa: 14.600.000 EUR» hitzen ordez «balantzearen zenbatekoa: 17.500.000 EUR» jarri da;
- b) bigarren puntuan, «negozio-bolumenaren zenbateko garbia: 29.200.000 EUR» hitzen ordez «negozio-bolumenaren zenbateko garbia: 35.000.000 EUR» jarri da.
- 4) 27. artikuluko hirugarren paragrafoan, «53. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako azterketatik ateratako kopuruak finkatuko dituen Zuzentaraua» kendu eta «zenbateko horiek finkatzen dituen edozein Zuzentaraua» jarri da.

5) 42 bis artikuluan, honako paragrafo hau erantsi da:

«5 bis. 3. eta 4. paragrafoetan xedatutakoa ezeztatu gabe, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1606/2002 (EE) Erregelamenduaren (*) arabera kontabilitateko nazioarteko arauak egin zituen Batzordearen 2003ko irailaren 29ko 1725/2003 (EE) Erregelamenduaren —2006ko irailaren 5era arte aldatutako Erregelamenduaren— arabera, Europar Batasuneko estatu kideek finantzatresnen balorazioa egiteko aukera eman edo balorazioa egiteko eskatu ahal izango dute, eta, horrez gain, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko uztailaren 19ko 1606/2002 (EE) Erregelamenduaren, kontabilitateko nazioarteko arauak aplikatzeari buruzko Erregelamenduaren (**), arabera, egindako kontabilitateko nazioarteko arauetan aurreikusitako informazio-eskakizunak egin ahal izango dituzte.

(*) L 261 EO 2003.10.13koa, 1. or. Azken buruan 108/2006 (EE) Erregelamenduak (L 24 EO 2006-01-27koa, 1. or.) aldatu zuen Erregelamendua.

(**) L 243 EO 2002-09-11koa, 1. or.».

6) 43. artikuluko 1. paragrafoan honako puntu hauek sartu dira:

«7 bis) balantzean sartu gabe dauden sozietatearen akordioen izaera eta negozio-asmoa eta akordio horiek sozietatean duten finantza-eragina, akordio horietatik sortzen diren arriskuak edo onurak garrantzitsuak badira eta informazio hori beharrezkoa bada sozietatearen finantza-egoera baloratzeko.

Puntu honetan adierazitakoa betez, sozietateek zabaldu behar duten informazioa murriztu ahal izango diete Europar Batasuneko estatu kideek 27. artikuluan aipatzen diren sozietateei, eta, horrela, akordioen izaera eta negozio-asmoa bakarrik zabaldu ahal izango dute;

7 ter) sozietateak loturadun alderdiekin egindako transakzioak —zenbatekoa, loturaren izaera eta sozietatearen finantza-egoera ulertzeko transakzioei buruz behar den gainerako informazioa— baldin eta transakzio horiek garrantzitsuak badira eta ez badira merkatu-baldintza arruntetan gauzatu. Banakako transakzioei buruzko informazioa transakzio horien izaeraren arabera erantsi ahal izango da, lotura duten alderdien arteko transakzioek sozietatearen finantza-egoeran dituzten ondorioak hobeto ulertzeko berariazko informazioa eskatzen den kasuetan izan ezik.

Puntu honetan xedatutako informazioa ez sartzeko aukera eman ahal izango diete Europar Batasuneko estatu kideek 27. artikuluan aipatzen diren sozietateei, 77/91/EEE Zuzentarauaren 1. artikuluko 1. paragrafoan azaltzen diren motako sozietateak ez badira. Kasu horretan, Europar Batasuneko estatu kideek informazioa mugatu ahal izango dute honako hauen artean zuzenean edo zeharka egindako transakzioetara:

- i) sozietatearen eta akziodun nagusien arteko transakzioetara, eta
- ii) sozietatearen eta administrazio-, zuzendaritza- eta ikuskapen- organoetako kideen artean egindako transakzioetara.

Europar Batasuneko estatu kideek salbuespenak ezarri ahal izango dituzte talde bateko bi kideren edo gehiagoren artean egindako transakzioetarako, baldin eta transakzioan parte hartzen duten filialak guztiz kontrolatuta badaude.

“Lotura duten alderdia” terminoari 1606/2002 (EE) Erregelamenduaren arabera egindako kontabilitateko nazioarteko arauetan duen zentzu bera emango zaio».

7) Honako artikulua sartu da:

«46 bis artikulua

1. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentarauko, finantza-tresnen merkatuei buruzko Zuzentarauko (*), 4. artikuluko 1. paragrafoaren

14. puntuaren arabera, sozietate bati balore higigarriak kotizatzea onartu bazaio merkatu arautuan, gobernu korporatiboko txosten bat sartu beharko du bere kudeaketa-txostenean. Txosten hori kudeaketa-txostenaren berariazko atala izango da, eta honako informazio hau izango du gutxienez:

a) honako alderdi hauen aipamen bat:

- i) sozietateak bete beharreko gobernu korporatiboko kodearena, eta/edo
- ii) sozietateak berak nahita aplikatzea erabaki duen gobernu korporatiboko kodearena, eta/edo
- iii) legeria nazionalak eskatutakotik haratago aplikatutako gobernu korporatiboko jarduerari buruzko informazio guztia.

i) eta ii) puntuak aplikatzen diren kasuetan, sozietateak adieraziko du non aurki ditzaketen herritarrek puntu horiei dagozkien testuak, eta iii) puntua aplikatzean, berriz, sozietateak publiko egingo ditu gobernu korporatiboko jarduerak;

b) legeria nazionalari jarraiki, sozietate batek ez badu aplikatzen a) letran, i) eta ii) puntuetan, aipatutako gobernu korporatiboko kodea, sozietateak azaldu beharko du gobernu korporatiboko kodearen zer zati ez dituen aplikatzen eta zergatik. Sozietateak erabaki badu a) letran, i) eta ii) puntuetan, aipatutako gobernu korporatiboko kodeko xedapenen bat ez aplikatzea, bere jarreraren arrazoiak emango ditu;

c) finantza-informazioa emateko prozesuari dagokionez, sozietateak dituen kontroleko barne-sistemen eta arriskuak kudeatzeko sistemen ezaugarri nagusien deskribapena;

d) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 2004/25/EE Zuzentarauko, erosteko eskaintza publikoei buruzko Zuzentarauko (**), 10. artikuluko 1. paragrafoaren c), d), f), h) eta i) idatz-zatietan eskatutako informazioa, sozietateak Zuzentaru hori bete behar badu;

e) informazio osoa lege edo erregelamendu nazionaletan jasota dagoen kasuetan izan ezik, akziodunen batzarrak funtzionatzeko modua eta batzarraren ahalmen nagusiak, akziodunen eskubideen deskribapen bat eta eskubide horiek erabiltzeko modua;

f) administrazio-, zuzendaritza- eta ikuskapen-organoen eta horien komiteen osaera eta funtzionamendua.

2. Artikulu honetan eskatutako informazioa txosten bereizi batean aurkezteko aukera eman ahal izango dute Europar Batasuneko estatu kideek, eta txosten hori kudeaketa-txostenarekin batera argitaratuko da, 47. artikuluan xedatutakoaren arabera, edo, bestela, aipamen bat egin ahal izango zaio kudeaketa-txostenean, baldin eta informazio hori edonoren eskura badago sozietatearen web orrian. Txosten bereizi batean argitaratuz gero, gobernu korporatiboko txostenak kudeaketa-txostenaren aipamen bat eduki ahal izango du, eta aipamen horretan eman ahal izango da 1. paragrafoko d) idatz-zatian eskatutako informazioa. 51. artikuluko 1. paragrafoko bigarren lerroaldea aplikatuko zaie artikulu honetako 1. paragrafoko c) eta d) idatz-zatietako xedapenei. Beste informazioari dagokionez, kontu-ikuskariak egiaztatuko du gobernu korporatiboko txostena egin dela.

3. Artikulu honetako 1. paragrafoko a), b), e) eta f) idatz-zatietako xedapenak aplikatuzetik aske utzi ahal izango dituzte Europar Batasuneko estatu kideek merkatu arautu batean kotizatzeako akzioak ez diren baloreak soilik eman dituzten sozietateak, 2004/39/EE Zuzentarauko 4. artikuluko 1. paragrafoko 14. puntuaren arabera, baldin eta sozietate horiek ez badituzte eman aldeanizetako negoziazio-sistema batean negoziatzen diren baloreak, 2004/39/EE Zuzentarauko 4. artikuluko 1. paragrafoko 15. puntuaren arabera.

(*) L 145 EO 2004.4.30ekoa, 1. or.

(**) L 142 EO 2004.4.30ekoa, 12. or.».

8) Honako paragrafo hau sartu da:

«10 *BIS* PARAGRAFOA

Urteko kontuak eta kudeaketa-txostena egiteko eta argitaratzeko betebeharrak eta ardura

50 ter artikulua

Europar Batasuneko estatu kideek bermatuko dute urteko kontuak, kudeaketa-txostena eta 46 bis artikuluan xedatutako gobernu korporatiboko txostena —baldin eta berezita egin eta argitaratuko balitz— Zuzentaru honetako baldintzen arabera, eta, beharrezkoa izanez gero, 1606/2002 (EE) Erregelamenduaren arabera egindako kontabilitateko nazioarteko arauen arabera egin eta argitara daitezten arduratuko direla sozietateko administrazio-, zuzendaritza- eta ikuskapen-organotako kideak. Barne-zuzenbideak ematen dizkien eskumenen mugen barruan jardungo dute organo horiek.

50 quater artikulua

Europar Batasuneko estatu kideek bermatuko dute ardurari buruzko beraien legezko xedapenak, arauzko xedapenak eta administrazio-xedapenak aplikatuko zaizkiela 50 ter artikuluan azaltzen diren

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

administrazio-, zuzendaritza- eta ikuskapen- organoetako kideei, gutxienez sozietatearen aurrean, artikuluko horretan xedatutako betebeharrak bete ezean».

9) 53 bis artikulua ordez, honako testu hau sartu da:

«53 bis artikulua

Europar Batasuneko estatu kideek ez dizkiete 11. eta 27. artikuluetan, 43. artikuluko 1. paragrafoko 7 bis eta 7 ter puntuetan eta 46., 47. eta 51. artikuluetan xedatutako salbuespenak emango merkatu arautu batean baloreak kotizatzea onartu dieten sozietateei, 2004/39/EE Zuzentarauko 1. artikuluko 1. paragrafoko 14. puntuaren arabera».

10) Honako artikulua sartu da:

«60 bis artikulua

Europar Batasuneko estatu kideek erabakiko dituzte Zuzentzarau honen arabera egindako xedapen nazionalak haustean ezarri ahal izango diren zigorrei buruzko arauak, eta beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte arau horiek ezarriko direla bermatzeko. Xedatutako zigor horiek eraginkorrak, taimainakoak eta asmoa kentzekoak izan beharko dute».

11) 61 bis artikulua ordez, honako testu hau sartu da:

«61 bis artikulua

Beranduenera ere 2007ko uztailaren leian, Batzordeak aztertu egingo ditu 42 bis artikulutik 42 septies artikulura arteko xedapenak, 43. artikuluko 1. paragrafoko 10. eta 14. puntuetakoak, 44. artikuluko 1. paragrafokoak, 46. artikuluko 2. paragrafoko f) idatz-zatikoak eta 59. artikuluko 2. paragrafoko a) eta b) idatz-zatietakoak, arrazoizko balioaren kontabilitateari buruzko xedapenak aplikatzen hartutako esperientzia kontuan izanik, bereziki 1606/2002 (EE) Erregelamenduaren arabera egindako NIC 39 aintzat hartuta, bai eta kontabilitatearen alorrean nazioartean izandako bilakaera ere. Beharrezkoa izanez gero, artikuluko horiek aldatzeko proposamena aurkeztuko die Europako Parlamentuari eta Kontseiluari».

2. artikulua

83/349/EEE Zuzentzarauaren aldaketa

83/349/EEE Zuzentzaraua era honetara aldatuta geratzen da:

1) 34. artikuluan, honako puntu hauek sartu dira:

«7 bis) balantzean sartu gabe dauden akordioen izaera eta negozio-asmoa eta akordio horien finantza-eragina, akordio horietatik sortzen diren arriskuak edo onurak garrantzitsuak badira eta informazio hori beharrezkoa bada finkapenaren barruko sozietate guztien finantza-egoera osotasunean baloratzeko.

7 ter) sozietate nagusiak edo finkapenaren barruko beste edozein sozietatek lotura duten alderdiekin egindako transakzioak —talde barruko transakzioak izan ezik—, zenbatekoak, loturaren izaera eta finkapenean sartutako sozietate guztien finantza-egoera ulertzeko transakzioei buruz behar den gainerako informazioa barne, baldin eta transakzio horiek garrantzitsuak badira eta ez badira merkatu-baldintza aruntetan gauzatu. Banakako transakzioei buruzko informazioa transakzio horien izaeraren arabera erantsi ahal izango da, lotura duten alderdien arteko transakzioek finkapenaren barruko sozietate guztien finantza-egoeran dituzten ondorioak hobeto ulertzeko berariazko informazioa eskatzen den kasuetan izan ezik.

2) 36. artikuluko 2. paragrafoan, honako letra hau erantsi da:

«f) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentarauko, finantza-tresnen merkatuei buruzko Zuzentarauko (*), 4. artikuluko 1. paragrafoko 14. puntuaren arabera sozietate bati merkatu arautu batean baloreak kotizatzea onartu badiote, urteko kontu finkatuak egiteko prozesuari dagokionez, kontroleko barne-sistemen eta taldeko arriskuak kudeatzeko sistemen ezaugarri nagusien deskribapena. Baldin eta kudeaketa-txosten finkatua eta banakako kudeaketa-txostena txosten bakarrean aurkezten badira, informazio hori gobernu korporatiboko txostenak duen kudeaketa-txostenaren atalean sartu beharko da, 78/660/EEE Zuzentarauko 46 bis artikuluan ezarritakoaren arabera.

Europar Batasuneko estatu kide batek 78/660/EEE Zuzentarauko 46 bis artikuluko 1. paragrafoan eskatutako informazioa txosten bereizi batean aurkezteko eta txosten hori kudeaketa-txostenarekin batera argitaratzeko aukera ematen badu, Zuzentzarau horretako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, lehen paragrafoari jarraiki emandako informazioa ere txosten bereizi horren parte izango da. Zuzentzarau honen 37. artikuluko 1. paragrafoko bigarren lerroaldea aplikatuko da.

(*) L 145 EO 2004.4.30ekoa, 1. or.».

3) Honako paragrafo hau sartu da:

«3 *BIS* PARAGRAFOA

Urteko kontu finkatuak eta kudeaketa-txostena finkatua egiteko eta argitaratzeko betebeharrak eta ardura

36 bis artikulua

Europar Batasuneko estatu kideek bermatuko dute urteko kontu finkatuak eta kudeaketa-txosten finkatua egiten dituzten sozietateko administrazio-, zuzendaritza- eta ikuskapen-organoetako kideek ardura kolektiboa izan dezatela kontu finkatuak eta kudeaketa-txosten finkatua, bai eta 78/660/EEE Zuzentarauko 46 bis artikuluan xedatutako gobernu korporatiboko txostena —baldin eta bereizita egin eta argitaratuko balitz— ere, Zuzentarau honetako baldintzen arabera, eta, beharrezkoa izanez gero, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko uztailaren 19ko 1606/2002 (EE) Erregelamenduari, kontabilitateko nazioarteko arauen aplikazioari buruzko Erregelamenduari (*), jarraiki egindako kontabilitateko nazioarteko arauen arabera egin eta argitaratu daitezkeen. Barne-zuzenbideak ematen dizkien eskumenen muga barruan jardungo dute organo horiek.

36 ter artikulua

Europar Batasuneko estatu kideek bermatuko dute ardurari buruzko beren legezko xedapenak, arauzko xedapenak eta administrazio-xedapenak aplikatuko zaizkiela 36 bis artikuluan azaltzen diren administrazio-, zuzendaritza- eta ikuskapen-organoetako kideei, gutxienez urteko kontu finkatuak egiten dituen sozietatearen aurrean, artikuluko horretan xedatutako betebeharrak bete ezean».

(*) L 243 EO 2002.9.11koa, 1. or.».

4) 41. artikuluan, honako paragrafo hau erantsi da:

«1 bis. “Lotura duen alderdia” terminoari 1606/2002 (EE) Erregelamenduaren arabera egindako kontabilitateko nazioarteko arauetan duen zentzu bera emango zaio».

5) Honako artikulua sartu da:

«48. *artikulua*

Europar Batasuneko estatu kideek erabakiko dituzte Zuzentarau honen arabera egindako xedapen nazionalak haustean ezarri ahal izango diren zigorei buruzko arauak, eta beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte arau horiek ezarriko direla bermatzeko. Xedatutako zigor horiek

eraginkorrak, tamainakoak eta asmoa kentzekoak izan beharko dute».

3. artikulua

86/635/EEE Zuzentarauaren aldaketa

86/635/EEE Zuzentarauko 1. artikuluko 1. paragrafoan, lehen lerroaren ordez honako testu hau sartu da:

«78/660/EEE Zuzentarauko 2. eta 3. artikulua, 4. artikuluko 1. paragrafoa eta 3. paragrafotik 6. paragrafora artekoak, 6, 7, 13 eta 14. artikulua, 15. artikuluko 3. eta 4. paragrafoak, 16. artikulutik 21.era artekoak, 29. artikulutik 35.era artekoak, 37.etik 41.era artekoak, 42. artikuluko lehen esaldia, 42 bis artikulutik 42 septies artikulura artekoak, 45. artikuluko 1. paragrafoa, 46. artikuluko 1. eta 2. paragrafoak, 46 bis, 48, 49, 50, 50 bis, 50 ter, 50 quater artikulua, 51. artikuluko 1. paragrafoa, 51 bis artikulua, 56. artikulutik 59.era artekoak, 60 bis artikulua, 61. artikulua eta 61 bis artikulua aplikatuko zaizkio Zuzentarau honetako 2. artikuluan araututakoari, baldin eta Zuzentarauak ez badu beste ezer xedatzen».

4. artikulua

91/674/EEE Zuzentarauaren aldaketa

91/674/EEE Zuzentarauko 1. artikuluko 1. paragrafoan, lehen lerroaren ordez honako testu hau sartu da:

«78/660/EEE Zuzentarauko 2. eta 3. artikulua, 4. artikuluko 1. paragrafoa eta 3. paragrafotik 6.era artekoak, 6, 7, 13 eta 14. artikulua, 15. artikuluko 3. eta 4. paragrafoak, 16. artikulutik 21.era artekoak, 29.etik 35.era artekoak, 37.etik 41.era artekoak, 42. artikulua, 42 bis artikulutik 42 septies artikulura artekoak, 43. artikuluko 1. paragrafoko 1. puntutik 7 ter puntura artekoak eta 9. puntutik 14. puntura artekoak, 45. artikuluko 1. paragrafoa, 46. artikuluko 1. eta 2. paragrafoak, 46 bis, 48, 49, 50, 50 bis, 50 ter, 50 quater, 51. artikuluko 1. paragrafoa, 51 bis artikulua, 56. artikulutik 59.era artekoak, 60 bis, 61. eta 61 bis artikulua aplikatuko zaizkio Zuzentarau honetako 2. artikuluan araututakoari, baldin eta Zuzentarauak ez badu beste ezer xedatzen».

5. artikulua

Barne-zuzenbidean sartzea

1. Europar Batasuneko estatu kideek beharrezko legezko xedapenak, arauzko xedapenak eta administrazio-xedapenak egingo dituzte, Zuzentarau honetan xedatutakoa beranduenera ere 2008ko irailaren 5ean betetzeko.

Europar Batasuneko estatu kideek xedapen horiek egiten dituztenean, Zuzentarau hau aipatuko dute

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

xedapenek edo aipamen hori izango dute ofizialki argitaratzen direnean. Europar Batasuneko estatu kideek ezarriko dituzte aipamena egiteko moduak.

2. Europar Batasuneko estatu kideek Batzordeari jakinaraziko diote Zuzentarau honek araututako esparruan egiten dituzten barne-zuzenbideko xedapen nagusien testua.

6. artikulua

Indarrean jartzea

Zuzentarau hau Europako Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratu eta hogeitau egunera jarriko da indarrean.

7. artikulua

Hartzaileak

Zuzentarau honen hartzaileak Europar Batasuneko estatu kideak dira.

Estrasburgon eginga, 2006ko ekainaren 14an.

Europako Parlamentuaren izenean,
Presidentea
J. BORRELL FONTELLES

Kontseiluaren izenean,
Presidentea
H. WINKLER